

2020.09.01

**Etxebarriko Udalak udalerrian Euskara Sustatzeko bi diru-laguntza deialdi argitaratu ditu:**  
**-2019/2020 ikasturtean egindako Euskara ikastaroak laguntzeko**  
**-Tokiko Merkataritzan errotuluak euskaratzeko eta *Berria* egunkariaren harpidetza diruz laguntzeko.**

Etxebarriko Udal Euskara Zerbitzuak honako diru-laguntza deialdiak argitaratu ditu esparru desberdinetan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko:

**-2019-2020 ikasturtean egindako Euskara ikastaroak laguntzeko deialdia.**

Laguntza hauen bitartez euskara ikasi duten etxebarritar helduei euskaltegiko ikastaroetarako ordaintzeko sari sistema ezartzen da. Ikastaro presentzial eta autoikaskuntza bidezkoak diruz lagunduko dira, haez gain, Barnetegiak eta Egonaldiak ere bai. Era berean Udako Euskal Unibertsitatean egindako ikastaroak ere diruz laguntzen ditu Udalak.

Etxebarrin erroldatutako herritar guztiek jaso dezakete laguntza hau eta laguntza berezia jasoko dute aitite amamek eta gurasoek edota begiraleek.

Horretarako Etxebarriko Udalak 25.000,00 euroko partida du onartuta.

Eskaerak egiteko epea irailaren 1etik 30era egongo da irekita. Eskaera egiteko beharrezkoa da eskabidea beteta eta dokumentazioa aurkeztea Arlo Soziokulturalean, (CIME eraikineko 2.solairuan) 8:00etatik 15:00etara. Tf: 94 426 7005. euskarazerbitzua@etxebarri.eus

**-Tokiko Merkataritzan errotuluak euskaratzeko eta *Berria* egunkariaren harpidetza diruz laguntzeko.**

Laguntza deialdiaren helburua da tokiko denda, taberna eta establezimenduetan euskararen presentzia areagotzea.

Etxebarriko denda, taberna edo ostalari lokalez arduratzen den pertsona fisikoak edo izaera pribatuko juridikoak izan daitezke onuradunak.

Errotuluak elebitan edo euskaraz jarriz gero jaso ahal izango da laguntza hau, bai dendetan bai ibilgailuetan. Euskara hutsean jarritako errotuluek %50eko laguntza jaso dezakete eta elebitan jarritakoek %30ekoa.

Bestetik, dendari eta ostalariak *Berria* egunkariaren harpidetza egiteagatik kostuaren 2/3 diruz laguntzeko aukera izango dute, argitalpen hau herritarren eskura egon beharko da uneoro.

Deialdi honetara 2.000 euroko partida dago onartuta eta eskaerak egiteko epea urte osoan irekita egongo da. Arlo Soziokulturalean, (CIME eraikineko 2.solairuan) 8:00etatik 15:00etara. Tf: 94 426 7005. euskarazerbitzua@etxebarri.eus

**+ INFO:** <http://www.etxebarri.eus/eu-ES/Jarduerak/Orrialdeak/2020-21-Euskara-Laguntzak.aspx>

2020.09.01

**El Ayuntamiento de Etxebarri ha publicado dos convocatorias de subvenciones para la Promoción del Euskera en el municipio:**  
**- Apoyo a los cursos de euskera realizados en el curso 2019/2020**  
**- Ayudas para Rótulos comerciales en euskera o bilingüe y suscripción al periódico Berria.**

El Servicio de Euskera Municipal de Etxebarri ha publicado las siguientes convocatorias de subvenciones para fomentar la presencia y el uso del euskera en los diferentes ámbitos:

**- Convocatoria de ayudas para cursos de euskera realizados en el curso 2019-2020.**

Se establece un sistema de premios para los cursos de euskaltegi a los vecinos adultos que hayan estudiado euskera a través de estas ayudas. Se subvencionarán, además de los cursos presenciales y de autoaprendizaje, los barnetegis y las estancias. Asimismo, el Ayuntamiento subvenciona los cursos realizados en la Universidad Vasca de Verano UEU.

Podrán beneficiarse de esta ayuda las personas empadronadas en Etxebarri, con especial atención a los padres, madres, aitites-amamas y/o monitores.

Para ello el Ayuntamiento de Etxebarri tiene aprobada una partida de 25.000,00 euros.

El plazo de solicitud estará abierto del 1 al 30 de septiembre. Para realizar la solicitud es necesario presentar la solicitud cumplimentada y la documentación en el Área Sociocultural (2ª planta edificio Cime) de 8:00 a 15:00 horas. TF: 94 426 7005. euskarazerbitzua@etxebarri.eus

**- Para traducir al euskera los rótulos en Comercio Local y subvencionar la suscripción al periódico Berria.**

El objetivo de la convocatoria de ayudas es aumentar la presencia del euskera en los comercios, bares y establecimientos locales.

Podrán ser beneficiarias las personas físicas o jurídicas de naturaleza privada encargadas de las tiendas, bares u hosteleros locales de Etxebarri.

Esta ayuda se concederá por la colocación de rótulos en bilingüe o en euskera, tanto en tiendas como en vehículos. Los rótulos colocados exclusivamente en euskera podrán obtener una ayuda del 50% y los rotulados en bilingüe del 30%.

Por otra parte, los comerciantes y hosteleros podrán subvencionar 2/3 de su coste por la suscripción al periódico Berria, estando esta publicación a disposición de la ciudadanía en todo momento.

A esta convocatoria está aprobada una partida de 2.000 euros y el plazo de solicitud estará abierto todo el año. Área Sociocultural (2ª planta edificio Cime) de 8:00 a 15:00 horas. TF: 94 426 7005. euskarazerbitzua@etxebarri.eus

+ Info: <http://www.etxebarri.eus/es-ES/Actividades/Paginas/2020-21-Euskara-Laguntzak.aspx>